

## **Santa Maria plaza. San Joan Bataiatzailearen irudi**

---

Uda hasiera ospatzeko Santa María plazan urtero ekainaren 23ko gaeuan, gure zaindari San Joansen jai bezperan, pizten den suaren lekuko zaharrenari eskain nahi dizkiot lerro hauek. Lekuko berezi horrek denbora luzean bizi izan ditu Tolosako hiriaren historiaren nondik norakoak. San Joan Bataiatzailearen irudia da ikusle leial hori, Marsili eskultoreak egina, eta XVIII. Mende amaieratik Santa Mariaren Jasokundearen parrokiako ataria edertzen du. Geroztik, Juan Lope herriko artistak beso bat berritu zion. Inguru horietan ibiltzen garenok ere santu zaindariaren irudi hau urtean zehar ahaztuke izaten dugun arren, bere jaia ospatu aurreko egunetan, herriak berak hartzen du San Joansen irudia zaintzeko ardura. Eta, urteko egunik alaienaren aurreko orduetan, eguzkia dantzan jaikitzen den horretan, txukun-txukun eta apaindurik ikusten dugu gure santua.

Eskultura hau 1778an jarri zuten orain dagoen lekuan; baina handik lau urtera Santiago Marsili egileak salatu egin zuen Udala, kontratuan ezarritako baldintzak ez zituelako betetzen. Honatx, gorabehera haien aipamen batzuk:


Por esta carta, Santiago Marsili, maestro escultor residente al presente en esta N. y L. Villa de Tolosa. Digo que el orden de ella y constituyentes que fueron de la misma, el año pasado de mil setecientos setenta u ocho trabajé en piedra un bulto o efigie de San Juan Bautista, y existe colocado por mí en la portada exterior de la iglesia parroquial (de) Santa María de esta dicha Villa, por la cantidad de trescientos ducados de vellón pagaderos en tres tercios y plazos a razón de ciento en cada uno, y que aunque cumplieron aquellos y me fueron satisfechos los dos tercios, a la paga de los cien ducados correspondientes al tercer tercio y plazo se excusaba y excusa la dicha Villa, por lo que contra ella tengo hecho recurso en el Corregimiento de esta provincia de Guipúzcoa (...).

Por el presente y su tenor. Otorgo que doy mi poder cumplido, el que de derecho en tal caso se requiere y es necesario, a D. Juan de Leiza, vecino de esta nuestra Villa, para que en mi nombre (...) los mencionados cien ducados los reciba con más (...) de las costas del incidente, y cobradas otorgue la Carta de pago (...). Tolosa 21 de mayo de 1782.

Ehun dukaten ordainketa gutunak

eta S. Marsalik Gipuzkoako Lurraldeko Agintari jaunaren Epaitegian eginiko eskaera eta helegitea direla eta sorturiko kostuen beste berrogeita hiru eta erdi

1782ko abuztuaren 27ko data du.



Santa Maria Plaza. San Joan Bataiatzailearen irudi / Juan Garmendia Larrañaga. – En : San Joanak 2000. – Tolosa : Tolosako Udala. - [24] p. : il. ; 24 cm. – P. 5